



Arabako Foru Aldundia  
Diputación Foral de Álava

Mahastizaintza eta Enologia zerbitzua  
Servicio de Viticultura y Enología

## **ARABAKO ERRIOXAKO ETA ARABAKO TXAKOLINAKO MAHASTIEN EGOERARI BURUZKO TXOSTENA, 2025-06-23koa**

2025 kanpainaren egoerari buruzko txostenak prestatzen hasi gara, eta kanpainaren hasierari buruzko laburpena egingo dugu:

### **2024ko udazkena**

Arabako Errioxan, azaroa beroa eta oso lehorra izan zela esan daiteke; izan ere, prezipitazio-egunen kopurua batez besteko klimatologikoa baino askoz txikiagoa izan zen. Tenperatura azken 30 urteetako batez bestekoa baino 2°C handiagoa izan da eta intsolazio edo eguzkialdia ere handiagoa izan da, batez ere, isurialde mediterranean. Aitzitik, abenduko prezipitazioak ohi baino % 50 emaritsuagoak izan ziren; prezipitazio horiek lehen hamabostaldian metatu ziren, eta zenbait estaziotan, 65mm-tik gora neurtu ziren. Tenperatura-bitartea azken urteetako ohikoaren antzekoa izan zen. Era berean, izotzen bat izan goizetan eta Ebro ibaiaren ibarreko lainoak ere agertu ziren, baina intsolazioa batez besteko historikoa handiagoa izan zen.

### **2024-2025eko negua**

Negua epela eta hezea izan zen Arabako zenbait eremutan, ohiko balioak edo, batzuetan, balio zerbait altuagoak erregistratu direla.

Urtarrila arrunta izan zen prezipitazioei dagokienez; prezipitazio horiek, gehienbat, azken astean metatu ziren. Tenperaturari doakionez, hil beroa izan zen. Intsolazio handiagoa erregistratu zen, eta izotz txikia bota zuen egun batzuetan. Egun bakarrean egin zuen elurra, baina pasadizozkotzat jo daiteke, elur-kota 700-800 metrokoa izan zenez, ez baitzien beheko kotei eragin.

Otsaila ere lehorra izan zen, euri gutxi egin zuen Arabako Errioxan eta +2°C-ko anomalia termikoa erregistratu zen. Bada, urtarrileko joerari eutsi zion eta haize-bolada handiak izan ziren, batez ere, hegoaldean.

Martxoan, berriz, prezipitazioen joera irauli egin zen, eta hego-ekialdeko haize hezeak eragindako depresioek prezipitazio ugari eragin zituzten, Ebro ibaiaren ardatzean ohiko balioa bikoiztu zutelarik, Arabako hego-ekialdean; Aiaran, berriz, prezipitazioak

urriak izan ziren. Intsolazioa ere ohikoa baino txikiagoa izan zen. Martxoaren erdialdean, B2 kimu hanpatuak eta C punta berdeak ikus zitezkeen, ohi baino bi aste lehenago.

## **2025eko udaberria**

Apirila ohi baino hezeagoa izan zen Arabako hegoaldean, prezipitazio-egun ugariekin. Oso beroa ere izan zen, batez besteko tenperaturak oso altuak izan zirela, eta maximoak batez bestekoaren gainekoak, ohi baino intsolazio handiagoak eraginda.

Apirilaren 15ean, txingorra egin zuen Arabako Errioxako eremu txiki batean, Mañueta, Eltziego, Eskuernaga, Samaniego eta Navaridas herrien artean. Kalteak ez ziren oso larriak izan (lursailen batean, % 30erainoko kalteak zenbatetsi zen), ezta zabalak ere, mahastien egoera fenologikoa oso aurreratuta ez zegoela kontuan hartuta; izan ere, mahastiak C punta berdeko egoeran zeuden, baten batzuk D hosto-hasikinetan eta gutxi batzuk E hostoak zabalik egoeran. Hala berean, nabarmenezkoa da, laboreei kalte nabarmena eragin diezaikeen izotzik ez zela izan, nahiz eta izotzak berak eragindako nekrosi arinak hauteman ziren, egunsentietan hodeitzarik egon ez zelako. Adierazitako baldintza klimatikoen zioz, mahastiaren garapen begetatiboa egokia izan zen, eta, ohi legez, udaberriko kimaketa eta kimu berrien kimaketa egin ziren.

Maiatza oso hezea izan zen, ekaitzak behin eta berriz gertatu zirelako, batez ere, hegomendebaldean, eta haize bortitza ere ibili zen. Tenperaturari dagokionez, maximoak oso altuak izan ziren, eta egun horietako batez besteko tenperaturaren anomalia termikoa positiboa izan zen, 4°C-koa. Aipagarria da, halaber, intsolazioa handiagoa izan zela Kantauri isurialdean, lurraldearen hegoaldearen aldean. Maiatzaren bigarren astean gertatu zen, gorrina agertu ohi denean, eta hala gertatuko zela susmatu zen, agertzeko baldintzak egokiak zirela eta. Gorrinaren aurkako tratamenduak ahal den neurrian egin ziren; bada, kasu batzuetan, lursail batzuk putzuz beteta egon ziren prezipitazio ugariak eraginda, eta inguruabar horretan, zaila da tratamendu mekanizatuak egitea.

Ekainean, lehen hamabostaldian, tenperaturak oso altuak izan dira, maximoak nabarmen altuak izan direla eta prezipitazio trumoiak gertatu direla. Prezipitazio horiek areago eragin dituzte gaixotasun fungikoak.

## **Arabako Errioxaren egungo egoera orokorra**

Tenperatura altuek, uraren eskuragarritasunak eta intsolazio egokiak mahatsondoen garapen begetatibo egokia ahalbidetu dute. Ekainaren 10ean, mahatsondo gehienak bi egoera fenologikoren artean zeuden: I2, estamineak iharturik eta J, fruituen hartzean. Ekainaren 23an, fruituen hartzea gauzatuta, mahatsondo gehieneko egoera hau da: K, aleak gizontzen. Oraindik goiz da era biribilean esateko, baina baldintza onak gertatu dira lerradura egon dadin, eta etorkizunak esango du fruituen hartzeari zenbateraino eragin dion. Mahastien osasun-egoerari dagokionez,

esan behar da oraingo egoera labaina dela, baldintza klimatikoek gaixotasun fungikoen garapena erraztu baitute. Maiatzaren hasieran agertu zen gorrina hedatuz joan da, hasteko hostoetan, eta kasu batzuetan, kalte eragin die lukuei. Kontrola zaila izan da, batetik, prebentziozko tratamenduak erabiltzeko helburuz, lursailetarako irispide mekanizatua mugatzen duten baldintzengatik, eta bestetik, inguruabar meteorologikoengatik: depresioak etengabeak izan dira, prezipitazio trumoitsoak ekarri dituztela, tenperaturak oso altuak eta gau epelek biziki lagundu dute esporak hedatzen; horiek horrela, giroa oso egokia izan da onddoak haz daitezen. Kalteak mugatzeko tratamendu ugari egin dira; kasu batzuetan, lauzpabost pasaldi egin dira, eta produktu sistemikoak, ukipen-produktuak eta produktu ekologikoak erabili dira txandaka. Balizko kalteak gerora ezarriko dira, eta orduan jakingo da aplikatutako tratamenduen ondorioz gaixotasuna zer neurritan kontrolatu den. Egoera zalantzazkoa da eta, gaur egun, udako tenperaturak dira nagusi; horri esker, ipar haizea dabilela eta ekaitzik ez dagoela, ziur asko, hein batean arinduko dira gorrinak mahastietan eragindako kalteak.

### **Arabako Txakolinaren egungo egoera orokorra**

Arabako Txakolinaren eremuan, negua beroa izan da, Arabako Errioxan bezala, eta +1,6°C-ko anomalia termiko positiboa erregistratu da 1999-2020 urteen aldean, izotz gutxirekin eta urte horietako ohiko prezipitazioen antzekoak izan direla. Udaberria ere beroa izan da: tenperatura altuak izan dira, izotz goiztiarrik ez da izan, eta haizeak iparraldetik jo du gehienbat, eta batzuetan, hego-mendebaldetik, depresioen zioz. Arabako Errioxan ez bezala, Aiarako bailaran prezipitazioak urriagoak izan dira, baina ez dira ohiko baliokoak baino txikiagoak izan.

Osasun-egoerari doakionez, gorrinak oso eragin txikia izan du, Arabako Errioxan ez bezala, bi lekuetako ohiturak trukatu izan balira bezala. Ohiko kontrola egin da, gaixotasun endemikoa baita, baina ez du eragin nabarmenik izan mahastietan. Ohiko prebentzio-tratamenduak egin dira, baina ez da ekaitzik izan eta, gainera, iparraldeko haizeek giroa freskatu dute eta horrek guztiak hedapena kontrolatzeko balio izan du, ohiko laboreek aurrera egin dutelarik. Okondo aldean, presioa handiagoa izan da eta inguruko ekoizleak lanpetuago ibili dira, baina egoki kontrolatu dute egoera. Ekainaren erdialdean, fruituen hartzea antzematen da mahastietan, K egoera fenologikorantz (ilar-neurriko aleak) bilakaturik. Ingurumari horretan, barietate goiztiarrak, hala nola Riesling, Hondarribi zuri barietateari aurrerratu zaizkio.

Oraingoz, garapen begetatiboa nahiz fruituen garapena oso onak dira, eta aurreikuspen baikorra dago kanpaina honi begira.

Data honetatik aurrera, harik eta mahats-bilketa egiten den arte, mahastizaintza-kanpainaren egoerari buruzko txostenak egingo ditu Mahastizaintza eta Enologia Zerbitzuak 15 egunean behin, gutxi gorabehera.

Guardia, 2025eko ekainaren 23a

**MAHASTIZAINZA ETA ENOLOGIA ZERBITZUA.  
NEKAZARITZA SAILA**